

2014ko ekainaren 5ean , UDALBATZAK egindako bilkura arruntaren AKTA. 1 .

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 20retan, Udalbatzarra bildu da, Idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate Lehendakari jaunak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: Igor Iturain Iburguren
ZINEGOTZIAK : M^a Jesus Arruabarrena Esnaola
Asier Iburguren Iburguren
Miren Idoia Iribar Beldarrain
Arkaitz Iruretagoiena Lertxundi
Nekane Arrizabalaga
Aitzpea Elgarresta Larrarte
Amaia Guruzeta Aizpurua
Mikel Zulaika Iruretagoiena
Aritz Arruti Mintegi, eta
Asier Egaña Illarramendi

Idazkari-Kontuhartzailea: Xabier Osa

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aktaren onarpena

2013ko abenduaren 30an egin zen Udal Batzarren akta onartu da, aho batez.

2.- Andatza eskola etxearen izaera juridikoaren aldaketa: desafekzioaren behin-betiko onarpena

Andatza eskola etxeko desafekziorako aurretiazko baimena Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak otsailaren 20an eman ondoren, udalbatzarrari dagokio behin-betiko onarpena ematea izaera juridikoaren aldatetari, hau da, desafekzioaren. (Hasierako onarpena 2013ko azaroaren 13an eman eta gero).

Espedienteak jendaurrean egon ondoren, ez du alegaziorik izan.

Idazkariak azaldu duenez, hartu beharreko akordioak, batzarkide gehiengo legal absolutoa behar du.

Alkatearen proposamena botatu eta aho batez, beraz, batzarkideen gehiengo absolutu legalarekin, hartu da ondoko

AKORDIOA

1.- Andatza auzoko eskola etxearen izaera juridikoa aldatzea hezkuntza zerbitzutik desafektatuz behin-betiko izaerarekin.

2.- Udal ondasunen erregistroan aldaketa hau jasotzea.

3.- 2013. Urteko Aurrekontuen Likidazioaren berri eman eta kontu Orokorrak onartu.

Kontu Orokorrak urtean zehar egin diren aurrekontu eragiketa guztien berri ematen du: aurrekontuarenak, aurrekontu-kanpokoak, ondarezkoak eta diruzaintzakoak.

Udal entitateak aurrekontuaren likidazioaz gain, Kontu Orokorra egitera behartuta dago eta ondoko hauek osatzen dute: Udalarenak eta Aia-Lantzen, S.A. sozietate publikoaren (bere kapital sozialean %50tik gorako partaidetza baitu). Eta ondoko dokumentu hauek izango ditu:

- 1.- Aurrez Alkate dekretuz onartutako Aurrekontuaren likidazioa.
- 2.- Egoera balantzea, ekitaldiaren itxiera egunean Ondarearen Osaera eta Egoera adierazten duena.
- 3.- Galdu-irabazien kontua, ekitaldiaren emaitzak azaltzen dituen, ekonomia eta ondarearen ikuspuntutik.
- 4.- Ekitaldiaren txosten bat, urteko finantzaketa taula eta zorraren egoerarekin.

Martxoaren 18an Kontu Orokorrerarako Batzorde Bereziak erabaki zuen 2013ko Kontu Orokorrari oniritzia eman eta jendaurrean jartzea. Jendaurrean jarri (BOG martxoaren 26an) eta agerraldi epean ez da inolako iradokizunik edo oharpenik aurkeztu.

Bozkatu eta aldeko 11 boturekin , erabaki da:

“ Udaletxeko kontuaz gain , Aia-Lantzen, S.A. elkartearenak osatzen dituzten 2013ko Kontu Orokorrak onartzea ”

2013. urteko Aurrekontuaren likidazioa.

2013. urteko Aurrekontuaren likidazioa jarri du mahai gainean Idazkariak eta Alkateak onartu duen Dekretuaren edukia azaldu du. Denen gainera azpimarratu duena diruzaintzako gerakin likidoa izan da, 621.493,96 euro dena.

4.- 2014. Urteko 3. Kreditu Aldaketa.

“Kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldaketaren 2014-KALD-000002-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin eta GASTOAREN ERREGLA betetzen dela, 2013 aurrekontuaren likidazioak superabita eman duelako.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu eta aldeko 6 boturekin – 5 abstentzio - beraz, legezko gehiengoz, honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

<u>Kapitulua</u>	<u>Izena</u>	<u>Gehikuntzak</u>
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	3.500,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	25.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	12.000,00
<u>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</u>		40.500,00

FINANTZAKETA

<u>Kapitulua</u>	<u>Izena</u>	<u>Zenbatekoa</u>
3 (SARRERAK)	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	2.640,00
7 (SARRERAK)	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	21.751,49
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	16.108,51
<u>GUZTIRA</u>		40.500,00

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

5.- Elkano auzoko frontoia eta elkartearentzat lokala egitasmoaren inguruko hitzarmena

Alkateak adierazi du Aia eta Zarauzko herrien artean banatzen den Elkano auzoan, auzotarrentzat beharrezko azpiegitura den frontoia eta lokala gauzatzeko, lankidetzaz hitzarmena adostea proposatu diola Zarauzko alkateari, udalherri bakoitzat bere gain hartuko dituen ekarpenak finkatzeko.

Zarauzko alkateak erantzun omen dio, besteak beste, izan dituzten azken kalteak eta duten egoera ekonomikoa kontuan hartuta, onartzen duela Zarauzko udalaren ekarpena, baina 5 urtetan banatuz.

Aritz Arrutik bere taldearen posizioa argitu nahian, adierazi du obra horrek ez duela euren ikuspegitik inolako lehentasunik.

Bozkatu eta aldeko 6 boturekin - aurkakoak 5 - alkatearen hitzarmen proposamena (eranskinean jasota dagoena) onartu egin da.

6.- Lur-Alkartasuna kooperatibarekin hitzarmena

Lur kooperatibak 2014. urtean egin nahi dituen lokalaren egokitzapen lanak direla eta, Alkateak batzarrari proposatu dio, udal laguntza ekonomikoa luzatzea kooperatibari, aurkeztu duen hitzarmen proposamenean jasotzen den moduan, 111.549 €-tako aurrekontuari aurre egiteko zailtasunak izango dituztelakoan.

Aritz Arrutik bere aldetik azaldu du iluntasuna dagoela zenbakietan, ez baitatozte bat hitzarmenak jasotakoak eta eurek esku tartean dituztenak. Proposatzen du hurrengo batzarraldi baterako atzeratzea erabakia.

Alkateak begi onez hartzen du proposamena eta 2 alderdien arteko adostasuna lortze aldera, onartzen du erabakia atzeratzea.

7. -AA.SS.-en Berrikusketaren 3. Aldaketa: A.I.U 16 “Arrazubi-Olazabal”. Hasierako onarpena

Udalak eginiko hirigintza dokumentua jartzen da mahai gainean, AA.SS.-en Berrikusketaren 3. Aldaketa: *Arrazubi-Errota* eremuei dagokiona.

Alkateak azaltzen duenez aldaketaren arrazoiak ondoko hauek dira:

- AA.SS.aurreikusten duen irteera, hau da, 2 etxeak eraitsi eta errepideari trazadu berria ematea ez dira egingarriak, Diputazioak ez duelako gaitasun ekonomiko nahikoa obra hori aurrera eramateko.
- Arrazubi-Olazabal etxeen nahiak asetzea, egungo etxea altza eta distribuzioa aldatuz eta beste eraikin berri bat eraikiaz.
- Arrazubi-Errota etxearen aprobeitxamendua berdina izanik 3 bizitza gauzatzeko aukera ematea, eta
- Foru Aldundiak, trafikoaren arazoa konpontze aldera proposatzen duen semaforizazioa eta une batean karril batetara mugatzea, gauzatzea.

Idazkari-Kontuhartzaileak eginiko txostena aldekoa da. Hark adierazi du 2/2006 Legearen 89 artikulua araberan, AA.SSen **aldaketa** izanik ez dela beharrezkoa “Aurrerakin dokumentua” -

Avance izenarekin ezagutzen dena - egitea. Bestalde espedienteak izan behar duen tramitazioaren berri eman du.

Bozkatu eta aldeko 11 boturekin, aho batez, beraz, beharrezko gehiengoarekin

ERABAKI DA:

- 1.- “AA.SS.-en Berrikusketaren 3. Aldaketa: Arrazubi-Errota ” dokumentuari hasierako onarpena ematea .*
- 2.- Espedientea jendaurrean jartzea, G.A.O.n eta Noticias de Gipuzkoa egunkarian argitaratuz.*
- 3.- Foru Aldundiko errepide sailari txostena eskatzea, errepidean eragina baitu egitasmoak.*

8.- BILDUK aurkeztutako mozioak

A.- Ikurrinaren aldeko mozia

Aritz Arrutik Bildu taldeak aurkeztutako mozioaren arrazoiak azaldu ditu, esanaz bandera espainiarra jartzea ez datorrela bat herri honen sentimenduarekin; eta horregatik Espainiako gobernuko delegaritzaren jarduera inposizio bat kontsideratzen dela. Ondoren argitu du mozioak jasotzen dituen proposamenak kalean egindako galdeketa onorio dela.

Alkateak ordezkotako proposamen bat luzatzen du, onartu beharreko puntuak onartzen dituela beti ere herri sarreretako ikurrinarena kendu ezkerok, kokapen hori ez duelako kontsideratzen egokia.

Nahiz eta beste herrietako sarrereetan ikurrina jarri ez , Aritz Arrutik defendatzen du Aiak erabaki propioa izan dezakeela. Hala eta guztiz ere lehentasuna emanaz bi alderdiak batera joateari gai honetan, onartzen du alkatearen proposamena. Baina argi adierazi du adostasun maila altuagoa eman beharko litzatekeela gai honetan.

Bozkatu eta aldeko 11 boturekin, beraz, aho batez, erabaki da:

- 1.- Espainiako Gobernuari adieraztea udaletxeko balkoian jartzera behartu gaituen Espainiako bandera ez dela gurea.*
- 2.- Bandera espainiarra zigor mehatxupearan jarria izan dela adierazten duen plaka bat udaletxeko atarian jartzea.*
- 3.- Aiako herritarrei deia luzatzea etxeko balkoietan ikurrina jartzera animatu daitezen.*

B.- Emakumeen autonomiaren eta erabakitze eskubidearen defentsan

Bildu taldeak emakumeen autonomiaren, bizitzaren eta gorputzaren aurkako erasoaren aurrean udal honek 8 puntu onartzea proposatzen du (eranskinean jasotzen den dokumentuan azaltzen direnak).

Alkateak Nafarroako Gobernuaren aipamena kendu ezkerok bere taldearen onespina eskeini du.

Aurkezleak –BILDUK- eskeintza hori onartu eta gero bozkatu, eta aho batez, onartu egin da Bildu taldeak aurkeztutako testoa, goian aipatutako ñabardurarekin.

8.- Ez da izan, ez eskaririk ,ezta galderarik ere.

Bilera, 21,15etan bukatu da eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezen, Idazkaria naizen honek akta hau jasotzen dut, Aian 2014ko ekainaren 5ean.

IDAZKARI -KONTUHARTZAILEA